

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Edukiontzia**  
lur azpian /08

KULTURA

**Azarorako**  
ekitaldi ugari /09

LEINTZ GATZAGA

**Ekitaldiz gainezka**  
asteburua /10

Euskal Herria



IZENA  
LEHEN DEITURA  
BIGARREN DEITURA  
HERRIA  
UDALA  
HERRIALDEA  
IGORLEA:  
jaulkitze-data

JAIOTZE URTEA  
irangitze-data

## EHNA egiteko bidea

**BAi Euskal Herriari taldea sortu dute herrian.  
EHNA tramitatzea du helburu,  
Eta EHNA erabili ahal izateko bideak zabaldu gura ditu.**



**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 25**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 26**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkarte .....	934 79 31 32
Industrialdea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
KZGynea .....	943 79 94 44
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruki ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 71 19 59
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Taxi geltokia .....	943 77 12 64
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALTAINGOA**

Arrasate .....	943 79 14 39
----------------	--------------

**LARRIALDIAK**

SOS Delak .....	112
Eskualde Ospitalea .....	943 03 53 00
Ertzaintza .....	943 53 47 20
Gurutze Gorria .....	943 76 55 76
Larrialdia .....	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofati) .....	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: GOROETA**  
Domekan 12:30ean.

**ARKARAZO**  
Zapatuan 11:30ean.

**GALARTZA/IZURIETA/GELLAO**  
Ez dute mezarik esango.

**OHARRAK**

**HITZALDIK KURTZEBARRI ESKOLAN**  
Emozioen trataera landu gura dute aurten Kurtzebarri Eskolako arduradunek gurasoeekin. Hori dela eta, hainbat hitzaldi antolatuta dituzte. Lehenengoa Itziar Etxebarria psikologo eta EHUko irakasleak emango die 6 urtetik gorako umeen gurasoei. Martitzenean, hilak 11, izango da, 18:00etan. Eta azaroaren 13an, egunean, Edurne Agirrezabala, Donostiako Udaleko Ongizate Sailako arduraduna etorriko da.

**ESKULAN IKASTAROAK**  
Udaleko Kultura Sailak eskulan ikastaroak jarri ditu abian. Hamarreko taldeak osatu ahala lanean hasiko dira; hortaz, interesatuek lehenbailehen eman behar dute izena kultura etxean. Ordutegia aukeran daukate eta hiru irakasle ibiliko dira erakusten: Mila Akizu, Rosa del Aguila eta Piedad Roman. Ikastaro bakoitza 30 ordukoa da eta izena ematerakoan 20 euro ordaindu behar dira.

**'SHIATSU' LANTEGIA**  
*Shiatsu* masaje sendagarririk zelan eman ikasteko lantegia antolatuta du Zainduz Osasun eta Fitness Zentroak. Azaroaren 22an eta 23an egingo dute; zapatuan goiz eta arratsalde eta domekan goizez bakarrik.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**ANTZERKIGINTZAREN GAIKEKO IKASTAROA**  
Loramendi EEk antzerkiaren gaineko interesa duten herritar guztiei egiten die dei. Antzerkigintzaren gaineko ikastaroa antolatzen dabil eta taldea osatu gurako luke. Ikastaroa egubakoitz ilunkaran izango da. Informazio gehiago gura duenak dei egin dezala Loramendi EEra (943 77 09 70), arratsaldeetan.

**ORAIN DELA 8URTE ARETXABALETAN**

**Militarrei baimen barik sartzea debekatu zien**

Espainiako armadako militarrek herrian baimen barik sartzea debekatu zuen Udalak, alkatezako dekretu baten bidez. Bi aste lehenago maniobrak egiten ibili ziren herriko lurretan. Udala asko haserretu zen baimenik eskatu barik sartu zirelako, eta herritarrengan urduritasuna sortu.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“kaskala”*

1. Intxurrena, urrarena, gariarena eta beste fruitu batzuenak.  
—Oso kaskal meia dauke arraultzok.  
2. Kaskila, buruarina.  
—Kaskal bat izan da beti eta oin be ala jarraitzen dau izaten.



**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**‘Zertaz ari garen...’**

Kontakizun laburrak biltzen dira Carverrek 1981ean argitaratu emaniko liburu honetan. Poesia idatzi bazuen ere, batez ere kontakizun laburrengatik da ezaguna.



**ZERTAZ ARI GAREN MAITASUNAZ ARI GARENEAN**

Liburuari titulua ematen dion ipuina maitasunaz ari da, baina beste zenbait gai ditu liburuan. Aipagarria da ipuinen egitura berezia izatea, beti amaierarik gabekoak. Pertsonaia arruntak aurkezten dizkigu, gauza arruntak eginaz, sentimendu kontrajarriz beteak, etsituak eta errealismo handiz tratatuak. Ikusten duena erakutsi baino ez digu egiten, iritzirik eman gabe. Amerikar ametsa baino Estatu Batuetako irudi gordinagoa erakusten digu.

Raymond Carver  
Alberdania, Elkar  
169 orrialde

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Odei Vazquez**  
24an. Zorionak eta muxu handi bat, anaiaren eta gurasoen partetik.



ARETXABALETA  
**Iago Zuazua**  
31n, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Asier Zuazua**  
1ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Asier Matas**  
1ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Osaba, izeba, Alex eta Jokin.



ARETXABALETA  
**Floren Agirre**  
3an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Auritz Iñurrieta**  
3an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Ane Eraña**  
7an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

**PHOTOSYNTHESIS**


argazkilaritza

**35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.**

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak  
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

**Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak**

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua  
Aingeru ibiltokia 41  
ESKORIATZA  
943 71 45 06 Faxe: 943 71 50 05





## ATREBENTZIAEZPADA/ Aste bukaeretan eta gabetan udaltzaiñen bat eukittie biherrezkue da?




**ARANTXA ARREGI**  
Langillie



**LUIS PEREZ**  
Langillie



**MARIASUN ESTEBAN**  
Langillie



**JON ANDER MENDIETA**  
Langillie



**JUAN ARRIOLA**  
Jubilaue



**ELENA ARENAZA**  
Langillie

Gabez eta aste bukaeretan ez daue lanik egitten ala? Bueno, pentsetan dot gaztiei dagokixenez aste bukerak izengo diela konfliktibuenak. Hala eta be, uste dot herri lasaixe dala hau.

Baietz esango neuke. Normalien ez da arazorik egoten, baiñe bueltatxo bat emutiek ez da askorik kostetan. Gaiñera, hasieran ertzaiñak ibiltten zien, baiñe oin uste dot ez dala inor ibiltten.

Bai. Nik Portasolen daukugun problemie ikusten dot. Aste bukaeretan eta gabetan kotxez gaiñezka egoten da eta danak gaizki aparikaute egoten die. Egunen baten zerbait pasauko da.

Neure ustez ez, oso herri lasaixe da-eta. Biherbada aste bukaeretan egunez bateron bat ibiltie ez litza-ke gaizki etorriko. Gabez ez dau faltarik egitten. Horretarako dauz ertzaiñak.

Bai. Falta egitten dau, goizez, gabaz eta aste bukeretan be. Horretarako ordainketan dogu guk. Beste hiru udaltzain jarriko neuke lanien eta ez daixela multak jarri bakarrik!

Bai. Beste edozein egunetan moduan, gabaz eta aste bukeretan be biherrezkuek die udaltzaiñak. Badakit oin dauzenak ezin izengo dauela lan hori egin, baiñe... Hala eta be, gurie herri lasaixe da.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ISUNAK GAZTELANIAZ BAKARRIK** Euskara zaintzeko Behatokiak aretxabaletar baten kexa jaso du. Herritar horrek salatzzen du Aretxabaletan berari jarritako isun bat gaztelania hutsean idatzita zegoela. Sail honetan bat gatoz herritar horren salaketarekin, eta, hortaz, bere kexak zabalkunde handiagoa izan dezan, hona hemen gure txistua. /A.L.

### ETABARRUAN...

POLITIKA /04

EHNA/05

KIROLAK /06

#### Aralarren balorazioa

Udal Gobernu osatzen duen Aralar alderdiak lehen hilabeteetako balorazioa egin du astean.

#### Bai Euskal Herriari taldea

Bai Euskal Herriari taldea sortu dute herrian. EHNA tramitatzea du helburu.

#### Abian dira multikirolak

Aurten Kurtzebarri eskolako 98 ikasle dabilza eskola orduetatik kanpo egiten diren multikiroletan.

### ASTEKODATUA

# 18

#### TXARTEL ATERA ZITUEN EPAILEAK PARTIDU BAKARREAN


UDaKo preferente mailako taldeak Amaika bat taldearen aurka jokaturako norgehiagokan epaileak 18 txartel atera zituen. Horietatik 16 horiak izan ziren eta bi gorriak.

### BESTE EKESANA

**“ Uste dugu garrantzitsua dela informazio kanal guztiak zabalik egotea herritarrek informatuta izateko. Guri dagokigun Udal gestioaz hitz egiteko, prentsaurrekoa egitea pentsatu dugu. Horrek balioko du orain arteko balorazio bat egiteko eta kanpotik gaizki informatuta egon barik, gure ahotik informazio hori zabaltzeko. Gainera, hemendik aurrera bide horretatik jarraitzeko asmoa dugu eta horretako aldizkari bat argitaratuko dugu noizean behin. Orain arte, plataformaren parte-hartzea ahalbideratzeko, gurea izan da Udalean aurkeztutako proposamen erreal bakarra. EAJk ez du gobernu batzordean proposamen hori onartu. Aretxak, beste aldetik, gure ustez bideraezina den proposamena egin digu.**

XABIER SARASUA  
'GOITB'/03-11-04

### HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



*Euruek euri*

**G**abonak, bai gabonak. Emuten dau gabonak urrin dazela eta hala da. Baine aurrekuen harrizte geratu nitzen telebisinue ixoketarakuen. Beti moduen iragarkixek, baine ez zien ohikuek. Nancy, Action Man, La Granja de Playmobil...

Ba bai, Gabonetako anunziuek hasi die. Gurasuek hasi zeikie diruzorruiek ongi preparetan, bueno... eta gurasuek ez zarienok be bardin. Merkatuko enpresak Gabonen alde egiten dauen apustue ikeragarrixe da. Baine hori bai, euren itxurien atzien kontsumismo hutse geraketan da agerixen.

Gabonetako etekinek ei die urteko onenak, eta hori igerrri egiten da, gabonak baino hilebete eta erdi lehenau hasten dienien gure bistie iragarki morduaz josten.

Igezko inkestean harire, familixa bakoitzak seirehune-

tik eta mila eta berrehun euro bittarteko gastuek ei zittuen gabonetan. Aurten be beste horrenbeste gastauko dogu gabonetan, baine urte danielen kredituaz lepo ibiliko ei gare. Surrealista samarra ezta?.

Surrealistie ez baine bai errealitate izen zan aurtengo Nafarroa Oinezen pasau zana. Eguraldi txarran ondorixoz, bertan behera itxi biher izen euien orduko egunerako antolatute eukien egune.

Oin ostera, laguntza eskien dabitx, beraz, gure laguntzie biher dau, danona. Bestela, 2005.urtien Espainako gobernuiek itxi egingo dau ikastolie.

Irudixek negargarrixe izen zien benetan, eta uste dot danok eskeini biher dogule zeozer, horreik umiok eskola duin baten ikesi deixien. Horreik ikasliok be beste ikastola batzuten daukien altzari, kalefakzino, gela edo eta jostailuek biher dituelako. Eutsi euskeriari!

**“Ba bai, Gabonetako anunziuek hasi die. Gurasuek hasi zeikie diruzorruiek ongi preparetan, bueno... guraso ez zarienok be bardin”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
2.400 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala





BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Han eta hemen

Batzuk han eta beste batzuk hemen, ez dau dudarik. Jesus Mari Herrasti EAJko zinegotzixe, esaterako, Brasilen dabilela ikusi dogu telebisiñotik. Antza Ibarretxe lehendakariarekin batera Ederlan lantegixe ikusten fan zan. Lan kontuegatik fan bai, baiñe gustora dabilela egingo nauke...

Hemen dauena, barriz, Beñat Etxabe da. Infantillen maillako Real Sociedad taldeko jokalarixe da, eta domekan UDAko infantillen kontra jokatu euen. Azken astietan lesionaute egon da, baiñe domekan jokaketan atara euen entrenadoriek, eta gustora ibilli zan. Realak irabazi euen partidue, gaiñera, eta zelan eta zortzi gol sartute. Ohorie ezin izen eutsien eutsi Aretxabaletako jokalarixek. Hurrenguen izen biherko da!

**POLITIKA/** Udaleko Gobernu batzordea osatzen duten kideen arteko giro ona eta lanerako gogoia aipatu zituzten

# Agintaldiko lehen hilabeteetako balorazio positiboa egin zuen Aretxabaletako Aralar alderdiak

AMAGOIA LASAGABASTER

Hauteskundeetatik hona ia bost hilabete pasatu dira, eta Aralar alderdiak balorazioa egiteko garai ona dela pentsatu du. Hori horrela, prentsurrekoa eman zuen astelehenean, eta Aralarko kideak pozik azaldu ziren orain arte egindako lanarekin.

Xabier Sarasuak, Aralarko zinegotziak, egin zuen berba astelehenean kazetarien aurrean. Agintaldiko lehen hilabeteetako lanaren berri eman zuen.

### HERRITARRAK INFORMATUTA

Xabier Sarasuaren esanetan, Aralarren helburua da jasotako botoei ordezkaritza abertzalea eta ezkerrekoa ematea Udalean. Herritarrei begira egin gura dute lan, eta herritarren parte-hartzea lortzeko mekanismoak abian jartzea izango dute lehentasunetako bat. Horren harira, herritarrak informatuta eduki gura dituzte, bai prentsurreko bidez, bai aldioro kaleratuko duten orri baten bidez.

### GOBERNU BATZORDEAN

Udaleko Gobernu batzordean parte hartzea erabaki zuen uztailean Aretxabaletako Aralarrek. "Asko eztabaidatu ostean hartutako erabakia izan zen, eta bi baldintza jarri genizkion EAJri: batetik, Udala lankidetzan gobernatzea; eta bestetik, legez kanpo utzitako Aretxa Plataformaren ordezkaritza bermatzea udal gestioan eta erabakietan", esan zuen Xabierrek. Uda-



Joxanjel Antxia, Xabier Sarasua eta Felis Beltran de Heredia Aralarko zinegotziek eman zuten prentsurrekoa astelehenean.

laren jardunaren inguruan pozik azaldu zen, baina bigarren baldintza oraindik bete barik dagoela aipatu zuen: "Arazoa konpontzeko proposamen erreal bakarra Aralarrek egin du orain arte, eta argi daukagu konponbidea alderdien borondatearen baitan dagoela".

### IKASTURTERAKO HELBURUAK

Kultura eta Euskara Sailaren, Herri Antolamendu eta Seguratasun Sailaren eta Ingurumen Sailaren

ardurak dituzte Aralarko hiru zinegotziek. Helburuen artean lehentasunak ezartzea zaila dela esan zuten; hala ere, zinegotzi bakoitzak gogotsu hartu du egiteko dagoena. Etxebizitzen arazoari, bestalde, aparteko ahalegina eskaini gura diote: bai etxebizitzen alokairuak bultzatuta, bai erreka beste aldean egitekoak diren etxebizitzak bidezko irizpideen arabera egin daitezzen zainduta. Gaineratu zuen Udaleko batzorde guztietan, Man-

komunitatean eta gainerako erakundeetan ere badihardutela.

Bukatzeko, Xabier Sarasuak berak Udalean hartu duen egun erdiko lan dedikazioak sortutako zalantzak argitu gura izan zituen: "Batetik, EUDELen proposamena izan zen; eta bestetik, bi hilabete ko lana egin ostean, behar-beharrezkoa dela deritzot lan handia dagoelako egiteko. Bergaran, esaterako, Aralarrek bere gain hartu du zinegotzi baten dedikazioa".

Arotz lanetan behar duzun guztia



**AZKARATE**  
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20



**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



**ZARAIA**  
**taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**OPEL**

**OPEL MERIVA**

Diesel CDTi Common Rail 100 ZP  
motor berria.

**GARAJE NORTE S.L.**

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA  
Tel. 943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20





**EUSKAL HERRIA**/ Taldea egubakoitzetan batzen da, eta herritar guztiei dago zabalik

# Bai Euskal Herriari taldeak EHNA bideratuko du herrian

MIRARI ALTUBE

Bai Euskal Herriari taldea sortu dute herrian. Euskal Herriko Naziotasun Aitorpen agiria bideratzea dute helburu; batetik, EHNA tramitatzea herritarrek esku artean izan dezaten, eta bestetik, EHNA erabili ahal izateko bideak zabaltzea.

Aretxabaletan EHNA tramitatzeko Bai Euskal Herriari taldea sortu berri dute. Ateak zabalik ditu, gainera, lanerako gogo duen edonoren zain.

## EHNA AGIRIA

Orain dela urte bi inguru, Bai Euskal Herriari eskubide zibil eta politikoen defentsarako taldeak EHNAren aldeko 125.000 sinadura batu zituen Euskal Herrian. Ordutik hona herri askotan hasi dira EHNA tramitatzen; udal batzuetan ofiziala egin dute, gainera.

Aretxabaletan, orain arte, ez dute sekula tramitatu. Aurreko agintaldiko udalbatzak, hala ere, tramitatzeko eskaera orriak jarri zituen eskura udaletxean. Eta EHNA agiria Udalean egin beharreko tramitazio guztietarako hartzea onartu zuen orduan udalbatzak, osoko bilkuran.

## EGUBAKOITZETAN

Orain hilabete batzuk Debagoienerako hainbat herritara zabaldu zuten EHNA egiteko aukera, tartean Arrasatera.



Orain hilabete inguru EHNA tramitatzeko eskaerak jaso zituzten Arrasaten.

Orain Aretxabaletan egin gura dute; hori dela eta, Bai Euskal Herriari taldea sortu berri dute. "Herritar batzuek elkartu eta taldea sortzea pentsatu genuen, beharra dagoela iruditzen zai-gulako. Batetik, euskal herritar-ron eskubideak errespetatu ditza-ten eskatu gura dugu eta bestetik eskubide urraketak salatu", dio Josu Atxaga taldekideak.

Bai Euskal Herriari taldea egubakoitzetan elkartzen da uda-letxe zaharrean, 19:00etan, hain zuzen. Taldea oraindik sortzen dabil, hortaz, zabalik dago lan egi-teko gogo duen edonorendako. "Taldearen lehenengo helburua EHNA tramitatzen hastea da, eta hurrengo pausoa herrian era-bili ahal izateko bidea zabaltzea izango da", dio Josu Atxagak.

## TXUTXU-MUTXUA




### Jose Inazio Iturbek jaso zuen Aratzen saria

Aratz Aretxabaletako atzeratuen elkarteko kideek taberna jarri zuten urriaren 19an. Gastronomía eta Folklore Jaialdia ospatu zutenean herrian. 2.000 euro lortu zituzten tabernarekin, eta diru hori atzeratuen familiei laguntzeko eta urtean egiten dituzten ekintzentarako erabiliko dute. Bestalde, jakiz betetako saskia zozketatzeko txartelak saldu zituzten tabernara hurreeratutako artean, eta saski horrek dagoeneko badaurka jabea: Jose Inazio Iturbek aretxabaletarra. Zorionak! /M.A.

## LABUR

### Aurtengo Loramendi Literatura Lehiaketa gertatzen dabil Loramendi Euskara Elkarteak

Loramendi EE aurtengo Loramendi Literatura Lehiaketa gertatzen dabil. Iazkoaren oso antzekoa izango da, nahiz eta aldaketaxoren bat edo beste egon. Ipuin eta poesia lehiaketa Lehen Hezkuntzakoendako izango da eta grabaketa, komiki, amodiozko gutun, e-mail eta piropo lehiaketa DBHkoendako. Azken bi lehiaketok Batxilergoko ikasleei ere zabalduko dizkiete aurtengoa.



LURRINDEGIA  
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETAKO

Aretz

taberna

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETAKO



TABERNA


ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETAKO • TEL. 943 79 32 34

JAUSORO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETAKO

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61



URBALTZ  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETAKO

URKULU

FERRETERIA • BRICOLAGE  
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 79 96 66 / Faxes: 943 77 10 33  
urkulu@cadena88.com

Angelines  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETAKO



MULTIKIROLAK

# Multikirolekin gaztetxoek gustuko kirola egiteko aukera izango dute

Txapelketez gain, hainbat kirol ekitalditan parte hartzeko aukera izango dute gazteek

AMAGOIA LASAGABASTER

**Kurtzebarri Herri Eskolako neska-mutilak dabilta aurten ere multikiroletan. Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitarteko ikasle gehienek hartzen dute parte eskola orduetatik kanpo egiten den jarduera horretan. Aurten 98 ikasle dabilta.**

Urriaren erdialdean jarri zituzten abian multikirolak. Eta iaz ez bezala, aurten txapelketak hila bete horretan hasi ziren; hortaz, Kurtzebarri eskolako ikasleek jokatu dituzte dagoeneko lehenengo norgehiagokak. Betiko moduan, norberak gustuko dituen kirola hartzen du parte. Aurten 98 ikasle dabilta: Haur Hezkuntzako 30, Lehen Hezkuntzako 47 eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 21.

## PARTE-HARTZAILE GEHIAGO

Oraingo ikasturtean multikirolak sekula baino indartsuago datoz. Izan ere, orain arte Aretxabale-tako ikasleak Eskoriatzakoekin ibiltzen ziren lehian; baina aurten, berriz, Arrasatekoak ere izan-



Kurtzebarriko neska-mutiek astero egiten dituzte entrenamendu saioak kirol etxean.

go dituzte aurkari. Arizmendiren bitartez egin dute lankidetzarako pauso hori, eta arduradunak pozik daude. Nagore Eraña Aretxabale-tako multikirolen koordinatzailearen esanetan, aldaketa horrekin partidu gehiago izango dituzte, batez ere neskek, eta

horrela ez dute betikoen aurka jokatu.

Txapelketez gain, bestelako kirol ekitaldiak ere egingo dituzte: mendi irteerak, herri kirolak, igeriketa saioak eta kirol egokituak gertatu dituzte, besteak beste, datozen hilabeteetarako.

FUTBOLA

## Azkenean ere, joan den domekan iritsi zen UDAk horrenbeste itxarondako garaipena

Azken partiduetan horrenbeste sufritu eta gero, azkenean ere, UDA-ko preferente mailako taldeak hiru puntu irabazi zituen. Joan den domekan, hilaren 2an gertatu zen, Amaika Bat taldearen aurkako norgehiagokan, 3-1 irabazita. Hala ere, ligako azken partiduetan moduan, epaileen erabakiek eztabaida piztu zuten partidu horretan ere. Hamasei txartel hori eta gorri bi atera zituen epaileak.

'SHIATSU' IKASTAROA

## Zainduz Osasun eta Fitness Zentroak 'shiatsu' masaje ikastaroa antolatu du

Zainduz Osasun eta Fitness Zentroak hastapeneko *shiatsu* ikastaroa antolatu du urriaren 22rako eta 23rako. Interesatuak 120 euro ordaindu beharko dituzte izena ematerako orduan. Bazkideek, bestalde, %10eko deskontua izango dute. *Shiatsu* delakoa Japonian sortu eta mundu osora zabaldu den masaje sendagarrria da. Gorputzeko desorekak saihesteko gomendagarria dela esaten dute adituek.

## PARTIDUAK

### FUTBOLA

#### Mondra-UDA

Preferentea.

Zapatua. 15:30. Arrasate.

#### UDA/Almen-Urola

Lehen mailako kadeteak.

Zapatua. 11:00. Ibarra.

### PILOTA

#### Aretxab.- Beloki

Nagusiak.

Zapatua. Iturrigorrin.

#### Eibar -Aretxab.

Nagusiak.

Egubakoitza. 20:00. Eibar.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

#### UDA 3 Amaika bat 1

Preferentea.

#### UDA 0 Hondarribi 5

Gazteak. Ohorezko liga.

#### Soraluze 4 UDA 0

Lehenengo mailako gazteak.

#### S.P Herrera 0 UDA/Almen 2

Lehenengo mailako kadeteak.

#### Almen/UDA 1 Bergara 2

Emakumezkoen liga.

#### UDA 0 Real Sociedad 8

Infantilak.

### UDA/Almen 5 Eibartarrak 2

Infantilak. Ohorezko liga.

### PILOTA

#### Zazpiburri 22 Aretxab.11

Lehenengo mailako nagusiak.

#### Zazpiburri 22 Aretxab.15

Bigarren mailako nagusiak.

#### Aretxab. 12 Antzuola 22


Bigarren mailako gazteak.

ETORRI ETA INFORMATU  
KONPROMISO BARIK

Azkenean, **laser** depilaziorako irtenbide eraginkorra: Megon 780

- Eraginkortasun handiena
- Denbora laburrean
- Segurtasun osoz

Gemes  
estetika



Ilargi plaza 1, ARETXABALETA. 943 79 99 18.




ERRETRATUZHARRA

## Arkarazo auzoko San Milixan jaiak

**A**ste bukaera honetan San Milixan jaiak ospatuko dituzte Gatzagan. Han bakarrik ez, Aretxabaletako Arkarazo auzoko jai nagusiak ere badira-eta San Milixanak. Auzo horretan, baina, hurrengo aste bukaeran izango dituzte ospakizunak: hilaren 15ean, zapatua, meza eta auzo bazkaria; eta domekan, meza eta meza ondokoa.

Arkarazoko jaiak entzute handia izan zuten garai baten. Izan ere, inguruko auzoetan antolatutako jai onenak izaten ziren. Zapatuan asto-karrera, bolo txapelketa eta auto-krosa egiten zituzten. Domekan, berriz, goitibehera txapelketa. Zapatu gaueko erromeria ere ez zen nolana hikoia izaten; Akelarre taldea, esaterako, urte baten baino gehiagotan etorri zen, eta bai Aretxabaletatik bai inguruko auzoetatik barra-barra hurreratzen zen jendea Arkarazora. Erretratuan auto-kros txapelketa dugu. Ikurrina eskuan duela lasterketari hasiera ematera doan auzotarra Jabier Zugasti da, Erderena baserrikoa. Eta 50 zenbakidun automobilean dagoen



mutila ere arkarazozarra da: Txainuena baserriko Josu Guenetxea. Bai automobilak, bai goitibeherak ere norberak egiten zituen, eta gehienetan, txapelketa ostean erabat apurtuta geratzen ziren. Txainuena baserriko Kontxi Mondragonen esanetan, ez zen inoiz ezer larririk gertatu, ez du behintzat akorduan. Auto-

kros txapelketa auzoko zelaietan egiten zuten, eta goitibehera txapelketa, ostera, Mendiolatik Arkarazora bitarteko errepidean. Inguruan ez zen horrelako beste txapelketarik egiten; hortaz, jende asko joaten zen biak ikustera.

Auzotarrek oraindik jaiak ospatu arren, orain 10 bat urte antolatu

zituzten aurretik aipatutako egitarau zabala zuten azken jaiak; Arkarazon zegoen txabola, taberna antolatzeko erabiltzen zutena, Udalak botarazi eta gero, hain zuzen.

**Informazioa:** Kontxi Mondragon

# IOSU

## harategia taberna

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel. 943 77 03 08



# ORAIN, JUAN ETA JAVI ZUEKIN



# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 7a / 144. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Hilabete barru jarriko dituzte lur azpiko edukiontziak Dorleta auzoan

AINTZANE GARDOKI

Datorren astelehenean, hilak 10, lur azpiko edukiontziak jartzeko lanak nori eman erabakiko du Udalak. Dorleta auzoan jarriko diren edukiontziak hilabete epean jarriko dira. Erantzun ona jasoz gero, urtarrilean Santa Anan ere jarriko dituzte lur azpiko ontziak.

Eskoriatza izango da lur azpiko edukiontziak izango dituen Debagoieneko lehenengo herria. Debarreneko hainbat herritan badaude lur azpiko edukiontziok, baina Debagoienean guztiak lur gainean daude.

### DORLETA AUZOAN

Dorletako auzoan jarriko dituzte lau edukiontziok: zaborra, ontziak, papera eta kartoia eta beira batzeko ontziak jarriko dituzte. "Datorren astelehenean erabakiko dugu lanak nori eman. Eta lanok adjudikatu ondoren hilabete izango dute arduradunek Dorletan joango diren lau edukiontziak jartzeko", esan digu alkate Juan Karlos Bengoak.

Ia 60.000 euroko aurrekontua dute edukiontziok lur azpian jar-



Laster jarriko dituzte Dorleta auzoan Debagoienean jarriko diren lehenengo lur azpiko edukiontziak.

tzeko lanok: "Espaloian zuloa egiteak 12.500 euroko kostua du eta edukiontziak jartzeko plataformak beste 44.000 euro balio du. Sistema berri hori garestiagoa da baina

bere alde onak ere baditu: oraingo ontziak egungoak baino handiagoak dira eta begi-bistatik kanpo gelditzen dira, gainera. Herria txukunagoa eta garbiagoa izango dugu.

Mantentze-lana nola egiten den ikusi behar dugu". Dena dela, jendeak ondo erantzunez gero, urtarrilean Santa Anan jarriko dira lur azpiko ontziak.

*Zaborra, ontziak papera eta kartoia eta beira batzeko ontziak jarriko dituzte*

*Ia 60.000 euroko aurrekontua dute edukiontziak lur azpian jartzeko lanok*

*Jendeak ondo erantzunez gero, urtarrilean Santa Anan jarriko dira lur azpiko ontziak*



### HUHEZIKO aparkamendua zabalik

Eskoriatzako Udalak eta HUHEZI fakultateko arduradunek hitzarmena sinatu dute oraintsu. Hitzarmen horri esker, Unibertsitateko aparkamendua zabalik egongo da egun osoz, eta eskoriatzarrek HUHEZIKO aparkamenduan autoa aparkatzeko eskubide osoa izango dute. Urteko egun guztietan, hau da, 365 egunez eta 24 orduz egongo da aparkamendua zabalik. Guztira 70 autoren-dako lekua du HUHEZIKO aparkamendua.

### LABUR

#### Tortolis ludoteka lekuz aldatuko dute laster

Axtroki Euskara Elkarteak kudeatzen duen Tortolis ludoteka datorren astean itxita egongo da: azaroaren 10etik azaroaren 14ra. Orain arte Gorosarri plazan kokatuta egon den ludoteka tokiz aldatuko dute; izan ere, datorren azaroaren 17tik aurrera Tortolis ludotekak Jose Arana kaleko 13. zenbakian -udaletxe zaharrean- hartuko du lekua. Dena dela badi-rudi hilabete batzuk egingo dituela bertan, gero, seguruenik, Tortolis ludoteka Santa Ana auzoan kokatuko baita.



TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

EUSKAL KANTU ETA JOLASEN IKASTAROA

Bihar hasi eta hurrengo bi asteotan (azaroak 15 eta 22) euskal kantu eta jolasen ikastaroa egingo dute Eskoriatzan. Adinaren arabera bi taldetan banatzekoak ziren ikasleak baina azkenean, 0-5 urte arteko umeei egokitutako kantu eta jolasak ikasiko dituzte guztiek. Hitzordua, 10:00etatik 12:00etara, Eskoriatzako kultura etxean.

KULTURA

Esku bete kultura ekitaldi antolatu dituzte azaroan

AMAGOIA LASAGABASTER

Joan den zapatuan gaztetxean egindako kontzertuak jarri zuen abian azaroko egitarau kulturala. Udaleko Kultura Sailak herriko hainbat talderekin lankidetzan gertatu du hilabete honetako eskaintza. Musika, berbaldiak, ikastaroak, bertso txapelketa... Ez da ezer falta.

Azaroaren 29ra arte iraungo du Udalak gertatutako egitarau kulturalak. Beste hilabete batzuetan egin duten moduan, herritar guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu dituzte. Hala ere, azaroa berezia izango da; oraingoan, herriko beste hainbat talderekin lankidetzan ekitaldi gehiago egongo dira.

EKITALDI UGARI

Gazte Asanbladak, HUHEZIK, Amuska emakume taldeak, Musika Eskolako Bandak, Axtrokik eta Luis Ezeizako Guraso Elkarteak egin dute, Udalarekin batera, azaroko egitaraua. Nork bere gustuko ekitaldiak antolatu ditu. Hala, joan den zapatuan, hilak 1, Gazte Asanbladak kontzertu arrakastatsua antolatu zuten gaztetxean. Horrez gain, atzo Euskal Selektioaren gaineko berbaldia egin zuten. Amuskak, bestalde, eguaztenez, hilak 5, gerraren inguruko berbaldia egin zuten eta azaroaren 21erako film emanaldi bat antolatu du. HUHEZIK ere bere ekarpena egin du; hain zuzen, poesia eta



Raik ipuin kontaketa saioa egin zuen martitzenean liburutegian.

musika ikuskizuna antolatu du datorren egunerako, hilak 13. Musika gehiago, baina, Musika Eskolako Bandak jarriko du; Santa Zezilia eguneko kontzertua egingo du hilaren 21ean. Luis Ezeizako

Guraso Elkarteak, berriz, Gaztaina Erre Eguna egingo du hilaren 27an. Horrez guztiaz gainera, Udalak eta Axtrokik antzerki emanaldiak eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

BERTSO TXAPELKETA

Udalak hilabete honetarako bildu dituen ekitaldi guztien artean, Gipuzkoako Bertso Txapelketaren finalerdiak piztu du ikusmin handien. Azaroaren 16an egingo dute norgehiagoka, kiroldegian. Sarre-rak dagoeneko salgai daude kiroldegian, Dorleta liburu dendan eta Mirentxu eta Aldatz tabernetan. Beraz, horra aukera.

*Hilabete honetako kultura eskaintzaren artean, bertso txapelketak piztu du ikusmin handien*

ALDATZ  
TABERNA

TRASPASATZEN DA

ESKORIATZA



Aranburuzabala 22, behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 20

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...  
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

AZKOAGA  
ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura

LABUR

Patxin eta Potxin Arizmendi ezagutzeko

Datorren azaroaren 15ean, Arizmendi ikastolako Almen gunea ezagutu eta arratsalde atsegina pasatu gura duten ikasle eta gurasoek aukera paregabea dute. 16:00etatik aurrera, 18:30 bitartean, egingo da festa. Patxin eta Potxin pailazoez eskainiko duten ikuskizunaz gain, ipuin kontaketa musikatua, eskulan lantegiak eta beste zer ikusi ugari egongo da. Ikastola ezagutu eta eguneroko lanean umeek zer egiten duten ikusi ahal izango dute gurasoek.

Sendotzako sakramentuan parte hartzeko deia

Parrokiak sendotzako sakramentua (konfirmazioa) hartu gura dutenei aukera eman gura die. 15 urtetik gorako herritarrek dute parte hartzeko aukera. Azaroaren 14an egingo dute bilera, 18:30ean, Itarte etxean. "Orain arte, behintzat, Eskoriatzan urtero-urtero izan ditugu -batez ere gazteak- sendotzako sakramentua prestatzen. Aurten, adibidez, sei laguneko taldea dabil", esan digu Imanol Andetxagak. Normalean, hiru urteko prozesua behar izaten da sendotzako sakramentua prestatzeko. Datorren egubakoitzean biltzen den jendearen arabera erabakiko dute ikastaroak noiz egin.



# San Milixanetako aste bukaera ekintzaz gainezka dator Leintz Gatzagara

AINTZANE GARDOKI

**San Milixan ardikixe jan eta aketeixan, dio esaera zaharrak. Azkeneko urteotan azaroko bigarren domekan ospatzen dute gatzagarrek San Milixan azoka. Aurten XI. Langintzen Feria egingo dute. Horiez gain, beste ekitaldi batzuk ere prestatu dituzte astebururako.**

Bihar, zapatua, *Gatzaga 2003* Gatzagaren eta gatzagarren gaineko diaporama estreinatuko dute frontoian. Bostehun argazki baino gehiagorekin osatutako bideoak 16 minutu irauten du. Lehenak bideoa ikusten ibarrek alkateak, kultura zinegotzi eta teknikariak eta kazetariak izan dira.

Udalak herriaren oraina eta etorkizunerako dituen asmoak iruditan jasotzea izan du helburu. Txelu Angoitia argazkilariak, Juan Martin Elexpuru idazleak, Beatriz Arzamendi musikariak eta guztien arteko lana koordinatzen Iñigo Astigarragak jardun dute. Orain dela bi urte hasitako lanaren emaitza laster ikusi ahal izango dute herritarrek. Hitzordua bihar, hilak 8, 19:30ean, herriko frontoian.

## SAN MILIXAN AZOKA DOMEKAN

Etzi, domekan, 10:30ean hasiko da XI. Langintzen Feria. Arabatik, Nafarroatik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako 16 artisau elkartuko dira Gatzagako frontoian.

Adar tailatzea, uztarriak, makilak eta maketak, erliebe handiko tailak, gaztainondo-zumitzen otarregintza, beira puztu modelatua, lore siku eta prentsatuak, argizari eskulangintza, arta-orrizko alfibrak, ehoziri lanak, gaztagileak eta turroigileak ikusi ahal izango dira, besteak beste, frontoiaren barrualdean. Kanpoaldean, berriz, forjalana ikusteko aukera izango da. "Ez da lan erraza horrenbeste artisau ekartzea. Baina egindako esfortzuak merezi izango duela espero dut", esan digu kultura zinegotzi Jon Sasiainek. "Artisauen artean berrikuntza ugari izango ditugu ikusteko".



Guztira 17 artisauak erakutsiko dituzte euren lanak XI. Langintzen Ferixan.

ARTXIBOA



Antolatzaileek espero dute datorren domekan, hilaren 9an, jai giro bikaina egotea San Milixan azokan.

ARTXIBOA

Eguerdian bazkaltzeko tartea egingo dute artisauak. 14.30etik 17:00etara bitartean azoka itxita egongo da, eta gero, 20:00ak arte egongo da azoka zabalik. Sorginak emakume taldeak, bestalde,

aurten ere izango ditu eginbehar ugari San Milixan egunean. Ohi-turari eutsiz, Gatzagako emakumeek talo ederrak egingo dituzte domekan, hilak 9. "80 kilo irin, 8 kilo hirugihar eta 10 kilo txis-

torra prestatuko ditugu", esan digu Sorginak taldeko kide Amaia Olabek. "Egia esan, izen handia hartu dute azkeneko urteotan emakumeek egiten dituzten taloek. Eguerdia aldera datozen lagu-

*Gatzagaren eta gatzagarren gaineko bideoa bihar, zapatua, 19:30ean estreinatuko da*

*"80 kilo irin, 8 kilo hirugihar eta beste 10 kilo txistorra prestatuko ditugu domekan"*

nei pazientzia izan dezatela eskatu gura diegu, taloak ondo harrotuta eta beroa egon behar du eta gozoa egoteko. Jende asko batzen da ordu berean talo erosteko, eta emakumeek ezin izaten dute gura beste talo egin denbora laburrean", gaineratu du Amaiak. "Buzkantzak ere egin ditugu eta buzkantzak erosi gura dituenak goizean ibili beharko du".

Era berean, Sorginak taldeak sendabelarren gaineko erakusketa jarriko du San Milixan azoka egunerako. "Joan den udaberrian hitzaldia egin zuen Alberto Altubek sendabelarren gainean. Udan belarrak batu genituen eta Andramaixetan sendabelarren gaineko erakusketa egin genuen. Gaur, egubakoitza, 18:30ean Altubek hitzaldi-praktikoa egingo du Garro jauregian. Adibidez, belarrekin ukenduak nola egiten diren erakutsiko digu. Eta domekan, egun osoz, erakusketa zabalik egongo da Garron bertan", jakinarazi du Olabek.

Gainera, Gatzagara doazen bisitariak domekan, 11:00etatik 14:00etara bitartean, 20 minuturo Gatz Museoa bisitatzeko aukera izango dute. Dena prest dago, beraz, domekarako Gatzagan: "Eguraldi ederra izango dugu; klaratarrei, behintzat, eraman dizkiegu 13 arrautzako dozena", esan digu Sasiainek.



## Gure Ametsa

**Ezkontzak  
Jaunartzeak  
Enpresa bazkariak  
Euskal janari tradizionala**

Tel. eta faxa: 943 71 49 52  
LEINTZ GATZAGA





Maulanda  
*merenderoa*  
Eguneko  
menua  
Maulanda Auzoa, 20540 ESKORLATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



## SAIO BEREZIA

Prestige:  
orain dela urtebete  
bizitakoa gogoan

Martitzenean, azaroaren 11n  
20:30ean

**Goitb**  
Goiena Telebista

*Ikusiko  
duzu!*







# MONDRA-UDA!

Debagoieneko derbi klasikoena Goiena Telebistan



Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**

MONDRA-UDA  
Laguntzaileak:  
Aretz, Azkena, Basabe jatetxea, Ezkutu, Gurea, Orly, Zاراia

Zapatuan, azaroak 8an  
Atxabalpe futbol zelaian, 15:30ean.  
19:30ean GOITBn